

CCOO-UGTK %8,3KO IGOERA PROPOSATU DUTE ETA GOBERNUAK %2KOA IRAGARRI DU

# Gutxieneko soldata 75.000 pezeta izateko eskatu dute sindikatuek

■ SMIak hamarkada honetan 1,6 punturen eros-ahalmena galdu du, sindikatuen arabera

■ SMIa batez besteko soldataren %36,1koa da, eta 2000. urtean %39ra igotzeko eskatu dute

■ Erreferentziatzen hartutako batez besteko soldataren %60ra heltzea proposatu dute European

Agentziak / Madril

LEGEZKO gutxieneko soldata (SMI) gaur egungo 69.270 pezetatik 75.000 pezetara igotzeko eskatuko diote CCOO eta UGT sindikatuek Espainiako Gobernuari. Proposatutako igoera hori %8,3koa izango litzateke.

Datozen bost urteetan, berriz, SMIa batez besteko soldataren %60ra iristea proposatu dute sindikatuek, Europako Karta Sozialak jasotzen duenaren ildotik.

Proposamen hori helaraziko diote sindikatuek Madrilgo Lan eta Gizarte Arazoetarako ministro Manuel Pimenteli hilaren 28an, SMIaz hitz egiteko elkartzen direnean.

Era berean, CCOOek eta UGTk alderdi politiko guztiekin elkartzeko asmoa dute, eta eskakizun horiek haien lege ekimenen artean sar ditzaten proposatuko diete.

SMIa langileen batez besteko soldataren %36,1koa da une hauetan. Sindikatuek proposatzen duten %8,3ko igoerak aurrera eginez gero, gutxieneko soldataren proportzioa %39ra iritsiko litzateke.

## Inflazioaren desbideraketa

Igoera kalkulatzeko, sindikatuek Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) aintzat hartu dute; aurten prebisioren gaineratik 0,9 puntu igo da indizea. Horri 2000. urterako aurreikusitako %2ko inflazioaren prebisia gehitu diote, eta batuketan horri Espainiako errenta nazionalaren %4,4ko parte proportzionala erantsi diote.

Aldagai horiek kontuan hartuta, aurtengo 69.270 pezetako SMIa (2.309 pezeta eguneko eta 969.780 urteko) 75.000 pezetara igoko litzateke 2000. urtean (82.500 pezeta eguneko eta 1.050.000 urteko).

CCOO eta UGT sindikatuetako ekintza sindikaleko arduradun Fernando Puig eta



UGTko eta CCOOeko ordezkari Toni Ferrer eta Fernando Puigek SMIrako proposamena aurkeztu zuten atzo.

Antonio Ferrerrek atzo adierazi zutenenez, 1990. urtetik hona Espainiako batez besteko soldata 9,3 puntu igo da, eta, SMIak, berriz, %1,6ko eros-ahalmena galdu du.

## 500.000 langile

Galera horretatik 0,9 puntu aurtengo inflazioak Gobernuaren aurreikuspenen alde-

an izan duen desbideraketari dagokio, Madrilgo Gobernuak aurtengo ekitaldirako %1,8ko inflazio tasa finkatu eta iragan azaroan %2,7ra iritsi baita. Kontuan hartu behar da SMIa, pentsioak bezala, hurrengo urterako aurreikusitako inflazio tasaren arabera eguneratzen dela.

Espainiako Estatuan

500.000 langilek jasotzen dute gutxieneko soldata, batez ere etxeko langileek eta nekazaritza nahiz arrantzen erlortzaileek, baita hitzarmenik ez duten langileek ere.

SMIa sei hilabeteko eguneratu ez izana leporatu diote CCOOek eta UGTk Madrili, Langileen Estatutuak horixe jasotzen duelako.

## Europako erreferentziatik urrun

■ SINDIKATUEK datoren urterako proposatutako igoerarekin, Espainiako SMIa batez besteko soldataren %39ra iritsiko litzateke, eta bost urtetan antzeko proportzioan igoz gero, %60ra helduko litzateke, Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen mailara, hain zuzen ere.

CCOO eta UGTko buruzagiek diotenez, proportzio hori igotzeko beharrezkoak dira azken urteetan: 1980. urtean SMIa batez besteko soldataren %47koa zen, baina aurten %36,1era jaitsi da.

Europako Batasuneko zortzi estatuk arautzen dute SMIa. Espainiak araututako diru kopurua ez

da iristen diru gehien ordainarazten duten lehenengo lau urteko kopurua erdira ere, sindikatuen arabera.

Bestalde, SMiren erreferentzia bestelako prestazio sozialak eguneratzeko ere erabiltzen da, batez ere prestazio ez-kontributiboak eguneratzeko. Hala, Gasteizko nahiz Iru-

ñeko Legebiltzarretan aurkeztu duten Gutun Sozialaren helburu nagusia, esate baterako, langabeentzako gizarte soldata SMirekin parekatzea da. Gasteizko Legebiltzarrean datorren urterako onartu duten gizarteratzeko gutxieneko soldata SMiren %71,6koa da.

## Ontzioletarako hitzarmena hauteskunderi begira sinatu dela dio PSEk

■ Ezkerraldeko eta La Navalen arazoak ez dituela konponduko uste du Redondok

J. A. / Bilbo

SEPIK eta sindikatuek ontziolen bideragarritasuna bermatzeko herenegun sinatutako hitzarmena «adabaki bat» baino ez dela eta ontziolen finantza arazoak konpontzeko ez dela balio izango esan zuen atzo Nicolas Redondo PSEko idazkariak.

Haren ustez, Espainiako industri arduradunek datorren martxoko hauteskunderi begira sinatu dute hitzarmena, hain zuzen ere sindikatuekin bakea lortu eta arazo sozial larririk izan ez dadin.

Hitzarmen horren ostean, ordea, Madrilek AESA talde osoa pribatizatu egingo duela ziurtatu du Redondok. Horren ondorioz, Sestaoko ontziola «desagertzeko zorian egon liteke». Arazo honi Babcock enpresarena gehituta, Ezkerraldeko egoera soziala «dramatiko» bilaka litekeela iragarri du Redondok.

## 30 lagunek 24 ordu igaroko dituzte Aldundiaren atarian

Europa Press / Bilbo

SESTAKO Langabetuen Asanbladako, Basauriko Bazterketaren aurkako Taldeko, Bilboko Elgera Taldeko eta Barakaldoko Berri-Otxoa Bazterketaren aurkako Plataformako 30 lagun Bizkaiko Aldundiaren jauregiaren atarian paratu ziren atzo, 24 ordu igarotzeko asmoz, «duintasunez bizitzeko neurriak» eskatzeko.

Ekimenaren antolatzaileek azaldu dutenez, «Administrazio Publikoak euren aurrekontuak hitzartzen ari dira egunotan, eta ongizate sozialera bideratutako laguntza publikoak igo egin diren arren, ez dira nahikoak». Gasteizko Legebiltzarrean onartutako gizarte laguntzak «guztiz» aldatu eta eskubide gehiago jaso ditzaten eskatu dute.